

Ebazpena: R 34/2022

Espedienteak: 22/2017 eta 18/2018 metatua

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 18an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioko (aurrerantzean, SGFAL) Maila Autonomikoa eta Tokikoa Finantzatzeko Idazkaritza Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) MSAk, MISAk eta VSAk (aurrerantzean, metatuta, zergapekoak) Gipuzkoako Foru Aldundian (aurrerantzean, GFA) eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzian (aurrerantzean, ZAEA) aurkeztutako zerga-kontsultei buruz sustatutako gatazkei buruzkoa. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira 22/2017 eta 18/2018 espedientezenbakiekin.

I. AURREKARIAK

1.- Zergapekoek 2016ko abuztuaren 8ko zerga-kontsulta egin zuten ZAEAREN Alacanteko Ordezkaritzan, eta bertan planteatzen zuten enpresak berregituratzeko eragiketa bat egingo zutela. Hauek dira eragiketa horren ezaugarriak:

a) Hiru sozietateek erabat zatitu nahi zuten, eta hiruruz sozietatek, likidaziorik gabe desegin zirenen izen bera izango zuten, eta enpresa-jarduerak jasoko zituzten. Laugarren onuradun batek diruzaintzako soberakinak eta aktibo higiezinak jasoko zituen (une horretatik aurrera beste onuradunei errentan emango zizkien).

b) Erakunde onuradunetako partaidetzak zatitutako sozietateetako bazkideei emango zaizkie, bakoitzak dituen partaidetzen arabera.

c) MSA, egoitza Gipuzkoan duena, sozietateen gaineko zergaren Gipuzkoako araudiak arautzen du; MISA, egoitza Nafarroan duena, Nafarroako araudiak, eta VSA, egoitza Alacanten duena, Estatuko araudiak.

d) Diruzaintzako soberakinak eta aktibo higiezinak jasotzen dituen onuradunak Gipuzkoan izango du egoitza soziala eta fiskala. Beste hirurek zatitutako zerga-egoitzari eutsiko diote, eta sozietateen gaineko zergaren araudi bera aplikatzen jarraituko dute.

e) Eragiketarako alegatutako arrazoi ekonomikoak hauek dira:

- Sozietateen ondare higiezina enpresa-arriskutik babestea.
- Egindako jarduerak berregituratzea eta arrazionalizatzea, negozioetan eraginkortasun eta errentagarritasun handiagoa lortzeko.
- Sozietate bakoitzean inbertsio- eta finantzaketa-erabakiak bereiztea.

- Gaitasun handiagoa kreditu-erakundeekin finantzaketa-baldintza hobeak negoziatzeko (interes-tasa txikiagoak) eta horiek lortzen laguntzeko.
- Etorkizunean enpresa-jarduerei buruz har daitezkeen erabaki estrategikoak erraztea (hirugarrenetikiko aliantzak, bat-egiteak, etab.).

Planteatzen den kontsulta da ea uste den berregituraketa-eragiketarako arrazoi ekonomiko baliozkorik dagoen, eta, ondorioz, ea aplikatzekoa izango litzatekeen bat egiteko, zatitzeko, aktiboak emateko eta sozietateen gaineko zergari buruzko Estatuko araudiaren balioak trukatzeko eragiketen (aurrerantzean, *BEZAT eragiketak*) araubide berezia.

2.- Zergapekoek 2016ko abuztuaren 9ko zerga-kontsulta egin zioten GFARI, aurreko planteamendu berarekin, baina galdetu zioten ea badagoen baliozko arrazoi ekonomikorik, eta, ondorioz, ea aplikatzekoa izango litzatekeen sozietateen gaineko zergari buruzko Gipuzkoako foru-araudiaren BEZAT eragiketen araubide berezia.

3.- 2017ko urtarrilaren 31n, Eusko Jaurlaritzak idazki bat helarazi zion SGFALri, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak (aurrerantzean, EZKO) zergapekoek GFAn egindako kontsultari erantzuteko egindako proposamenarekin.

SGFALK dio idazkia 2017ko otsailaren 13an jaso zela, baina BFAk dio 2017ko otsailaren 7an sartu zela.

4.- 2017ko apirilaren 10ean, SGFALk EZKOk egindako erantzun-proposamenari buruzko oharrak bidali zizkion Eusko Jaurlaritzari. Ohar horiek bat zetozen Zergen Zuzendaritza Nagusiaren 2017ko martxoaren 29ko txostenarekin.

Idazkia 2017ko apirilaren 18an sartu zen Eusko Jaurlaritzan.

2017ko apirilaren 11n, aipatutako oharrak aurreratu zitzaizkion Eusko Jaurlaritzari posta elektronikoz, eta egun berean irakurri ziren.

5.- 2017ko uztailaren 6an, SGFALk aipatutako kontsultari buruzko gatazka sustatu zuen Arbitraje Batzordean.

6.- 2017ko abenduaren 27an, SGFALk 2017ko abenduaren 15eko erantzun-proposamena igorri zion Eusko Jaurlaritzari, honako hau adieraziz: Ekonomia Itunaren 47. artikulua araberak, enpresak berregituratzeko eragiketari aplikatu beharreko araudia Estatukoa izan beharko litzateke.

7.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak, 2018ko otsailaren 23ko idazkian, erantzuna igorri zion SGFALi (2018ko otsailaren 27an jaso zen), eta adierazi zion erakunde bakoitzari bere araudia aplikatuko zaiola, eta administrazio bakoitzak duela eskumena egiaztatzen ea bidezkoa den BEZAT eragiketen araubide berezia aplikatzea bere eskumeneko sozietatei.

8.- SGFALk, 2018ko apirilaren 24an Eusko Jaurlaritzak 2018ko maiatzaren 2an jasotako idazkian, berretsi egin zuen erantzuna.

9.- 2018ko maiatzaren 9an, BFAk aipatutako kontsultari buruzko gatazka sustatu zuen Arbitraje Batzordean, dagokionez.

BFAk Ekonomia Itunaren 68.Bi artikuluan ezarritako prozedura laburtuaren bidez izapidetzea eskatu zuen, eztabaidarik ez dagoela iritzita, gaia argituta dagoelako, Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak WIk egindako kontsultari emandako erantzunaren bidez

10.- 22/2017 gatazkan, Nafarroako Lurralde Ogasunak pertsonatzeko eskatu zuen (aurrerantzean, NLO).

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan xedatutakoaren arabera. Hau ezartzen du artikuluko horrek:

b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko.

Kontsulta, zehazki, zergapekoek sozietateen gaineko zergaren (foru-zerga edo Estatukoa) BEZAT eragiketen araubide bereziaz baliatu ahal izateko planteatutako arrazoi ekonomikoaren baliozkotasunari buruzkoa bada ere, administrazioen arteko desadostasuna aurreko maila batean kokatzen da: eragiketa arautu behar duen araudiaren zehaztapenean eta hura baloratzeko eskumena duen administrazioan.

Puntu horretan jarriko du arreta Arbitraje Batzordeak, ez baita bere eginkizuna edo eskumena enpresa-berregituraketa baten arrazoi ekonomikoa baloratzea, ez eta gainerako ezinbesteko baldintzak betetzea ere, bereziki proportzionaltasun kuantitatiboari eta kualitatiboari buruzkoak, eragiketak araubide berezi horren onura jaso ahal izateko.

2.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua honako hau xedatzen du:

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Arbitraje Batzordeak metaketa erabaki du, bi administrazioen aurrean egindako zerga-kontsulta bakar bati erantzuten zaiolako. Kontsulta horri dagokionez, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak bakarrik zuen ebazteko eskumena.

3.- Prozedura laburtua

Ekonomia Itunaren 68. artikulua honako hau xedatzen du:

Prozedura laburtua aplikatuko da ekonomia-itun honetako 64. artikuluko b) letrako eta 47.ter artikuluko Hiru apartatuko kasuetan.

Kasu horietan, auziak izapidetzeko hilabeteko epean onartu beharko ditu Arbitraje Batzordeak, aurkezten direnetik zenbatzen hasita; hamar eguneko epe komuna emango die ukitutako alderdi guztiei alegazioak egin ditzaten, eta epe hori bukatu eta hilabetean eman beharko du ebazpena.

Prozedura arrunta erabili da, eta, horren bidez, azken alegazioen izapidea eman da hilabetez; izan ere, Wik egindako kontsultari emandako erantzuna gorabehera, argi dago kasu honetan administrazioen arteko eztabaidak bere horretan dirauela.

Nolanahi ere, 39/2015 Legearen hirugarren xedapen iragankorrak hau adierazten du:

a) Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko lege hau, eta, beraz, aurreko araudiari jarraituko zaio halakoetan.

b) Lege hau indarrean jarri ondoren hasitako ofizioz berrikusteko prozedurak lege honetan ezarritako moduan bideratuko dira.

c) Lege hau indarrean jarri ondoren emandako egintza eta ebazpenek lege honetan ezarritako errekurso-araubidea izango dute.

d) Lege hau indarrean jartzean betearazteke dauden egintza eta ebazpenek, betearazpenari dagokionez, eman zirenean indarrean zen araudiari jarraituko diote.

e) Dagozkion lege- eta erregelamendu-xedapenetan aurreikuspen espresurik ez bada, administrazio-prozeduraren arloan sortzen diren zuzenbide iragankorreko arazoak aurreko puntuetan ezarritako printzipioen arabera ebatziko dira.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiaren legitimazioa

BFAk uste du legitimatuta dagoela gatazka Arbitraje Batzordean aurkezteko, bi arrazoiengatik:

- Alde batetik, uste duelako eman beharreko ebazpenak BFAren ordainarazpen-eskumenari eragingo diola, oinarri bera duten beste kasu batzuetan.
- Bestetik, BFA Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan ordezkaturako administrazioetako bat delako.

Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua honako hau xedatzen du:

b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko.

64.b) artikulua *ukitutako beste edozein administraziori* buruzkoa da, eta hor, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, badirudi autonomia-erkidegoko administrazioaz gain foru-administrazioak ere sartzen direla.

Izan ere, EAEren solaskidetza Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari ematen zaio, eta organo horretan Eusko Jaurlaritza eta hiru foru-aldundiak daude ordezkaturak.

Ikuspegi horretatik, onargarria dirudi BFAk gatazka aurkezteko legitimitate aktiboa izatea.

Egia esan, BFAren lehen argudioak zuzenean aipatzen du hirugarren interesduntzat hartzen duela 39/2015 Legearen 4.1 artikulua, eta horrek, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsua jartzeko legitimazioa emango lioke, 29/1998 Legearen 19.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera; beraz, beharrezkoa da Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen aurrean gauzatzen den alde zuzeneko administrazio-prozedurarako sarbidea izatea, 39/2015 Legearen 54. artikuluan jasotzen den zentzu berean.

5.- EZKOren jarrera

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak honako premisa hau hartu du abiapuntutzat: onuradunei beren partaidetzaren proportzioan onuradunen

partaidetzak emanaz gero, ez da beharrezkoa zatitutako elementuak jarduera-adarrak izatea.

Zergapekoek alegatutako arrazoiak aztertuta, EZKOk uste du baliozko arrazoi ekonomiko bat dagoela Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren VII. kapituluko VI. tituluan aurreikusitako araubide bereziaren aplikazioa babesteko.

6.- BFAren jarrera

BFAren ustez, aplikatu beharreko irizpidea Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean WIk egindako kontsultari buruz lortutako akordioan finkatu zen.

Kontsultagileak, Bizkaiko araudi-erakundeak, balore-trukea egitea planteatu zuen, eta, horren bidez, lurralde erkideko hainbat filialetan zituen baloreak Estatuko araudia bete behar zuen holding sortu berri batera bideratzea.

Kasu horretan, erantzun zen trukeak kontsultagilearentzat izango lituzkeen zerga-ondorioak aplikatu beharreko araudiari dagozkionak izango liratekeela, eta gauza bera esan liteke holding-ari buruz.

Kontsultari erantzuteko eta araubide bereziaren bidez kotasuna egiaztatzeko eskumena aplikatu beharreko araudia duen administrazioari dagokio.

BFAren ustez, irizpide hori bera modu baketsuan aplikatu du Zergen Zuzendaritza Nagusiak, besteak beste, kontsulta lotesle hauetan: V0440-14, V0768-14, V4488-16, V0587-14, V0525-14, V0526-14, V2724-14, V1638-14, V0316-11, V1142-10, V3015-15, V0354-17.

BFaren ustez, 2017ko apirilaren 7an isiltasun positiboa egon zen EZKOren irizpidea berresteko, SGFALk ez baitzuen erantzun 2 hilabeteko epean.

BFaren ustez, Ekonomia Itunaren 47. artikulua 1992. urtea baino lehenagoko BEZAT eragiketei bakarrik aplika dakieke, baimen-prozedurak izapidetu ondoren zerga-onurak baitzeuden.

7.- GFaren jarrera

GFaren ustez, Arbitraje Batzordeak ez luke onartu beharko 22/2017 gatazka, uste baitu EZKOren proposamena Ekonomia Itunaren 64. artikulua araberan 2 hilabeteko epe preklusiboan erantzunik eman ez duelako onartu duela SGFALk.

GFaren ustez, Ekonomia Ituneko 47. artikulua ez zen jadanik aplikatzekoa administrazioak BEZAT eragiketei aplikatu beharreko zerga-onurak desagertu zirenean.

Arbitraje Batzordeak 16/2018 Ebazpenean (11/2015 gatazka, REVOCOS BIKAIN) jorratu du dagoeneko eztabaidagai den gaia, hau da, sozietate bakoitzak bere garaian bete beharreko araudia aplikatuko du, eta administrazioa bera izango baita dagozkion baldintzak betetzen direla egiaztatuko duena.

8.- SGFALren jarrera

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua ezin zaie aplikatu kontsultan aipatutako sozietate guztiei. MSARI, desegiten denari zein onuradunari, Gipuzkoako araudia aplikatzen zaio, MISARI, biei, Nafarroakoa, eta VSARI, biei, Estatukoa.

Ez da daturik eman laugarren onuradunari aplikatu beharreko araudia zein den jakiteko.

Onuraduna foru-araudiaren arabera arautuz gero, MAYENSAren zatiketari bakarrik aplikatuko litzaioke; aldiz, Estatuko araudiaren arabera arautuz gero, VSAren zatiketari bakarrik aplikatuko litzaioke.

Ekonomia Itunaren 47. artikulua arabera (*Enpresak bat egiteko eta zatitzeko eragiketetan, aurreko 14. artikuluan aipatzen diren tributazio-irizpideei jarraituta kasuan kasuko tributu-onurak bi administrazioek aitortu behar baldin badituzte, foru-aldundiek aplikatuko duten araudia une bakoitzean lurralde erkidean indarrean egongo den bera izango da, eta kasuan kasuko administrazio-espedienteak izapidetuko dira administrazio bakoitzean*), erabateko zatiketan parte hartzen duten erakunde guztiak araudi bera bete behar ez badute, aldundiek Estatuko araudia aplikatu beharko dute.

Nafarroaren kasuan, ez du garrantzirik, araubide bereziak Estatuko araudian aurreikusitako eduki bera baitu.

Horren arabera, Estatuko araudia aplikatu behar zaio enpresak berregituratzeko eragiketa osoari, baita MSAr ere, nahiz eta laugarren onuraduna foru-araudiaren arabera arautu.

SGFALren ustez, BFAk aurkeztutako zerga-kontsulta guztietan, Zergen Zuzendaritza Nagusiak ez du bereizten aplikatu beharreko araudia estatukoa edo forala den, baizik eta soilik ebazten du zer irizpide aplikatu beharko liratekeen araudi erregulatzailerik Estatukoa izanez gero.

SGFALren ustez, Ekonomia Itunaren 47. artikulua indarrean jarraitzen du, eta BEZAT eragiketei aplika dakieke.

9.- Gatazkaren indarraldia

Eusko Jaurlaritzak bi hilabeteko epean ez erantzun izanaren ondorioz 2017ko apirilaren 7an eragindako isiltasun positiboaren inguruan duen jarrerak eztabaida sortuko luke honi buruz: ea administrazioak prozedura amaitzeko ebazpen-egintza bat emateko betebeharra betetzen ez badu sortuko litzatekeen defentsagabezia saihesteko Estatuko eta foru-zergen araudian eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian aurreikusitako ustezko egintzen araubidea (horrela, administratuari kendu egingo litzaioke Konstituzioaren 24. artikuluan ezartzen den benetako babes judizialerako eskubidea), Ekonomia Itunaren 64. artikuluko b) letrako lehen apartatuan aipatzen den isiltasunarekin lotu daitekeen. Gainera, kontuan hartu da zerga-kontsulta lotesleei ez erantzuteak ez duela aurreikusten ustezko egintzen araubiderik, ez estatuko araudian, ez foru-araudian.

Une honetan, eztabaida hori alde batera utzi behar da, BFAk 22/2018 gatazka planteatzeak, 22/2017 gatazka eragin zuen zerga-kontsulta berari buruz, aukera ematen baitu foru-jarrera baztertzeko, eta, beraz, bidezkoa da Arbitraje Batzorde honek eztabaidaren bere eskumeneko zatiari buruzko iritzia ematea.

10.- Arbitraje Batzordearen jarrera

10.1.- Zergen ikuspegi juridikotik, ez da enpresak berregituratzeko eragiketa bat, baizik eta nortasun juridiko propioa duten hiru sozietateren hiru erabateko zatiketa bereizi.

Beraz, eragiketa bakoitzaren araudi erregulatzailerak aztertu behar da, bai eta alegatutako arrazoi ekonomikoaren baliozkotasuna baloratzeko eskumena duen administrazioa eta dagokion araubide berezia aplikatzeko gainerako baldintzak ere.

10.2.- Araubide orokorra versus araubide berezia

BEZAT eragiketek tratamendu bera dute sozietateen gaineko zergaren zerga-araubide orokorrean, Estatuko eta foru-araudietan. Horrela, eskualdatzaileak, kasu honetan likidaziorik gabe desegiten den sozietateak, eskualdatutako ondasunen merkatu-balioaren eta kontabilitate-balio garbiaren arteko aldearen araberrako errenta du. Bestalde, bazkideek jasotako partaidetzen (onuradunenak) merkatu-balioaren eta baliogabetutako partaidetzen kontabilitate-balio garbiaren arteko aldearen araberrako errenta dute (dagokien ezarpen bikoitza –ez integratzea edo kentzea– saihesteko neurriak aplikatzea alde batera utzi gabe).

Eragiketa horien araubide orokorraren araberrako zergapetzeak baliozko arrazoi ekonomikoa duen eragiketa bat egiteari pizgarririk kendu ez diezaion, Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/434/EEE Zuzentarauaren transposizioaren bidez txertatu zen, bai foru-araudian, bai Estatuko araudian (desberdintasun batzuekin bada ere), neutraltasuna ezaugarri duen BEZAT eragiketa-araubide berezi bat, tributazioa geroratuz lortzen dena. Horrela, zatituak ez du zergarik ordaintzen eskualdaketaun unean, baina onuradunek, egoiliarrek, Espainiako lurraldean dauden ondasunak jasotzen dituzte, zatitutako sozietatean zuten balio eta antzintasun berarekin, eta tributazioa ondasunak hirugarrenei eskualdatzen zaizkien unera atzeratzen da.

Aurreko guztia ulertu behar da araubide orokorraren eta bereziaren arteko beste desberdintasun batzuk alde batera utzi gabe, hala nola araubide horretan eskualdatzailearen zerga-oinarri negatiboetan eskuratzaillea subrogatzeko dagoen muga, eta abar. Horiek ere garrantzia dute, baina ez dira azterketa honen xede nagusia.

Beraz, irizpide orokor gisa, baieztatu daitezke enpresak berregituratzeko eragiketa batek aurrezki fiskal soilaz bestelako baliozko arrazoi ekonomiko bat badu, eta aplikatzekoak diren gainerako baldintzak betetzen badira, geroratze-araubidearen onura jaso dezakeela, nahiz eta, horrez gain, zerga-abantailaren bat izan dezakeen.

10.3.- Araubide berezia aplikatzearen ondorioak

Desberdintasun nagusia da, ikusi dugun bezala, eskuratutako ondasunen errenta inplizituen tributazioa desberdina dela hirugarrenei eskualdatu arte.

Geroratze horren ondorioz, gerta daitezke eskualdatzaileari ordainarazteko eskumena duen administrazioa (araubide orokorrean zergak ordaintzen dituen) ez izatea onuradunari ordainarazteko eskuduna (zerga araubide berezian ordainduko duena izango da); hau da, ordainarazteko eskumena administrazio batetik bestera aldatzea gerta daitezke.

10.4.- Aplikatu beharreko eta administrazio eskuduna

Ondorioz, araubide bereziaz baliatu ahal izateko aplikatu beharreko araudia eskualdatzaileari aplikatu beharrekoa da, hark uzten baitio zergak ordaintzeari. Araudi hori bera loteslea izango da eskuratzailarentzat, tributazio arruntean beste arauen batek arautzen badu ere, geroratze-erregimenaren aplikazioa baldintzaren bat betetzearen inguruan soilik.

Ondorioz, alegatutako arrazoi ekonomikoaren baliozkotasuna baloratzeko eskumena duen administrazioa da eskualdatzaileari ordainarazteko eskumena duena, hau da, une honetan bilketari uko egiten diona.

Beraz, zatiketa bakoitzaren onura fiskalak aitortu behar dituzten bi administrazio ez daudenez, ezin da aplikatu Ekonomia Itunaren 47. artikulua.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea MSA, MISA eta VSaren zatiketa-eragiketei aplikatu beharreko araudia Gipuzkoako eta Nafarroako foru-arauak eta Estatuko araudia direla, hurrenez hurren. Halaber, GFAk, NLOk eta ZAEAk ere eskumena dute arrazoi ekonomikoa baloratzeko.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Nafarroako Gobernuari.